

PLAN ESTRATEGIKOA 2024-2030

Selem

1.- XEDEA

Askotariko pertsonak gara, konprometituak, lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren bidez eraldaketa soziala bultzatzen duen irabazi-asmorik gabeko euskal GKE batean elkartutakoak. Ikuspegi feminista intersektional, horizontal, parte-hartzaile, desazkundezale eta koherente batetik, bizitza erdigunean jartzen dugu, eta kontsumo¹ kritiko, arduratsu eta eraldatzaile baterako proposamenak lantzen ditugu, giza eskubide indibidual zein kolektiboekiko errespetua eta ingurumenaren defentsa nagusi diren mundu bat eraikitzeko.

Ikerketak egiten ditugu; prestakuntza-prozesuak eta sentsibilizazio-ekintzak sortzen ditugu; herritarren mobilizazioa bultzatzen dugu; sarean egituratzen gara alternatibak eraikitzeko; eta, salatzeaz gain, gizartean eta politikan eragiten dugu. Hori guztia nazioarteko lankidetzako zein gizarte-eraldaketarako hezkuntzako prozesuen bidez egiten dugu, honako hauek sustatzeko:

- Bidezko merkataritza eta elikadura-burujabetza
- Finantza etikoak
- Ehungintzaren sektore deslokalizatuan giza eskubideak eta laneko eskubideak errespetatzea
- Ekoizpenaren eta kontsumoaren bidez indarkeria matxistak desagerraraztea
- Xede feminista eta generoko kuestionamenduak dituzten erakundeak nahiz genero eta sexu aniztasunak sustatzen dituzten kolektiboak indartzea

Gure metodologia antolakunde-ikaskuntzan², lankidetzak ekitatiboan eta malgutasunean oinarritzen da, betiere gure printzipio, balio eta helburu berak partekatzen dituzten beste erakunde aliatu batzuekin sareko lan baten testuinguruan. Jokabide-aldaketen aldetik izaten ditugun lorpenak aztertuz ebaluatzen dugu geure eginkizuna, aldaketa pertsonalei, antolakundeak izandako aldaketei zein antolakunde arteko harremanetan gertatutakoei erreparatu.

Euskadikoaz gain, Espainiako Estatuko, Europako, Ekuadorko, Kolonbiako, El Salvadorko, Guatemalako, Chiapasko eta arropa ekoizten duten zenbait herrialdeetako beste kolektibo eta populazio batzuekin aliantzan egiten dugu geure lanaren zati handi bat. Sare ugarian parte hartzen dugu, eta haietako batzuetan SETEMek berak du lidergoa.

Antolakunde-barruan, aldeztu dugun eredu politikoarekiko koherentziaz harremanak izan, antolatu eta lan egin nahi dugu (eta horixe lortzeko ahalegintzen gara), bereziki antolakundearen kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaileari eta erakunde-kultura feministari dagokienez.

Zer da antolakundearen kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailea? Antolakunde gisa egiten dugun apustu bat da, kontsumitzen ditugun ondasun eta zerbitzuak tokikoak, bidezko merkataritzakoak, ekologikoak, finantza etikokoak, ekonomia sozial eta solidarioak, merkatu sozialekoak, energia berriztagarrikoak, garraio publikokoak, kontsumo neurritsukoak, berrerabilgarriak... izan daitezen.

Zer da erakunde-kultura feminista? Erakundearen azterketa sakona egiteaz ari gara, haren funtzionamenduaren, estrategien, prozeduren, egituren, sinesmenen eta erakunde osatzen dutenen portaeren alderdiak identifikatuz; izan ere, horiek guztiek menderatze eta desoreka logikak sor baititzakete, modu kontzientean edo inkontzientean. Gure eguneroko jardunetan emozioak kudeatzeko dinamiketan eta indarkeriarik gabeko komunikazio kontzientean sakontzea eta horiek errotzea da, bai eta gatazkak arautzeko nahiz taldea zaintzeko teknikan trebatzea ere.

¹ Kontsumoaz ari garenean ekoizpenaren arloa ere barne hartzen dugu, txanpon beraren bi aldeak direlako. Hain zuzen ere, SETEMek bere jardunaren zati handi bat bideratzen du ekoizpen-baldintzetan zuzeneko eragina izatera; adibidez, nekazariei edo ehungintza-enpresetako emakume langileei lagunduz. Era berean, uste dugu kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaileak ikuspegi feminista barne hartu behar duela, bestela ezingo baita inoiz eraldatzailea izan.

² Antolakunde-ikaskuntza prestakuntza eta gogoeta kolektiboko prozesutzat hartzen dugu. Prozesu hori bai barnekoa zein gure harreman-inguruneke beste entitate eta pertsona batzuekin egitekoa da, eta antolakundearen politika eta praktiketan aldaketak eragiten ditu.

2.- BALIOAK

Gure apustu estrategikoa balio feministak, bizitzaren jasangarritasuna, aniztasunak eta sorkuntza kolektibo eta horizontala ardatz dituen definizio politiko batetik abiatzen da. Berez, printzipio horiek balio-marko oso bat barne hartzen dute, SETEMi zentzua eta horizontea ematen dizkiona; banaka zein kolektiboki egiteko, funtzionatzeko eta harremanak ezartzeko modua blaitzen duena. Hortaz, jarraian egingo dugun deskribapena marko politikoaren eranskintzat hartu behar da, edo, hobeki, haren funtsaren zatitzat:

- **Koherentzia.** Gure baliabideen kudeaketak, erakundearen parte hartzen duten pertsonen trataerak eta beste erakunde batzuekin ditugun harremanen izaerak bat etorri behar dute adierazitako gure printzipioekin.
- **Aniztasuna.** Aniztasunak (kulturalak, etnikoak, linguistikoak, sexualak, ideologikoak, funtzionalak, bioaniztasuna...) gure bizitzak aberastu eta osatu egiten dituzte, giza eskubideetan oinarrituriko errespetu eta ekitatezko testuinguru batean.
- **Espiritu kritikoa.** Etengabe berrikusten ditugu geure pentsatzeko, izateko eta jokatzeko moduak, gure ingurune mugimenduekin eta haien ideia zein proposamenekin elkarrizketa ezarriz.
- **Zaintza.** Erakunde-kultura feminista bat eraikitzen dugu zainketen bidez: pertsona boluntarioak, kontratatatuak eta bazkideak, espazioak, gauzak, lurra eta ingurumena zainduz.
- **Parte-hartze horizontala eta sareko lana.** Horizontaltasuna oinarri hartuta, kolektiboki eraikitzen dugu, garena eta izan nahi duguna besteak direnarekin eta izan nahi dutenarekin uztartuz.
- **Elkartasuna, ekitatea eta erantzunkidetasuna.** Alde guztientzat aberasgarria den truke ekitatibo bat bultzatzen dugu, alde horiek guztiak zuzenean inplikaturik, pertsonen eta herrien duintasuna sustatzeko eta bidegabekeriak desagerrarazteko helburuarekin.
- **Goatzeko eskubidea.** Plazera eta ospakizuna bezalako printzipioen balioa nabarmentzen dugu, eta horiek gure egunerokotasunean presente egotea nahi dugu.
- **Sorkuntza aktiboa («kreaktibitatea»).** Hausnarketara, ekintzara eta mobilizaziora garamatzaten metodologia sortzaile eta artistikoak sustatzen ditugu.
- **Gardentasuna.** Dokumentazio publikoa, kuantitatiboa zein kualitatiboa, eskuragarri jartzen dugu, gure jardueren eta gure baliabideen kudeaketaren gardentasuna bermatzeko.

3.- GURE IKUSPEGI POLITIKOA (ZEHARKAKO ILDOAK)

SETEMen ikuspegi politikoa gure plangintza estrategiko osoan zehar hedatzen da, eta proposamen irekia da, etengabeko eraikuntza kolektiboan dagoena. Gure eraldaketa sozialerako ereduak jarrera, balio eta arauetan eragiteko apustua lehenesten du; hain zuzen ere, planetan bizi diren giza taldeen jokabideei zein egitura sozial, kultural, politiko eta ekonomikoei forma ematen dieten horietan.

SETEMen aldarrikatzen dugun kulturaren kontzeptuak baztertu egiten du egungo gizarte kontsumista, matxista, uniformatzaile eta zentralizatzailearen homogeneousazioa, eta kultura-aniztasunaren alde egiten du, horrek ahalbidetzen baitu pentsamenduen, gustuen eta izateko zein munduan egoteko moduen ugaritasuna; bai eta naturarekiko zein gainerako gizakiekiko errespetutik abiatuta harremanak izateko askotariko moduak ere; ahaztu gabe giza eskubideak kultura-aniztasunarentzako babesa eta muga direla. Alde batetik, eskubide kulturalak Giza Eskubideen parte dira, eta giza askatasunen zein giza duintasunerako berme dira. Bestetik, kultura-aniztasuna indartu behar da, ahaztu gabe tradizioek ezin diotela kalterik eragin osotasun integral gisa ulertutako bizitzari. Ildo horretan, SETEM eta gure erakunde aliatuen proposamen eraldatzaileei sostengua eta zilegitasuna ematen dien markoa **Giza Eskubideek** eratzen dute; aldi berean, proposamen horiek beti errespetatu behar dituzten mugak ere ezartzen dituzte.

Hauk dira SETEM Hego Haizearen edozein jarduera eraikitzeke eta definitzeko ardatzak:

3.1. SETEM erakunde feminista bat da

Epistemologia feministaren arabera, errealitatea zein ikuspegi eta tokitatik begiratzen den esplizituki adieraztea ezinbestekoa da modu zintzo eta kokatuan ekiteko: errealitatea izendatzeko moduaren arabera, gauza batzuk edo besteak ikusaraziko dira.

Feminismoen (pluralean) barruko askotariko korronteen ikuspegi eta kontzeptuez elikatzen gara: ekofeminismoa, feminismo dekoloniala, feminismo antirrazista, transfeminismoa. Malgutasunari eusteko, korronte batzuek eta besteek eskaintzen dizkiguten ñabarduren aldeko apustua egiten dugu, ikasten, geure burua berrikusten eta gure izate zein zeregin feminista garatzen jarraitzeko konpromisoarekin.

Beraz, sistema kapitalista zisheteropatriarkala zalantzan jartzen dugu, eta gure egiten dugu teoria feministek botere-harreman konplexu eta askotarikoak interseksionalitateak behatzeko duten begirada kritikoa. Interseksionalitateak aitortzen du generoa ezin dela begirada bakar batetik ulertu; izan ere, askatasunetik eta duintasunetik abiatutako bizitza-proiektuak egitea eragozten duten zapalkuntzen aniztasuna eta aldiberekotasuna ulertzeko, beste botere-harreman batzuk eragiten dituzten elementuak ere kontuan hartu behar dira: genero- eta sexu-identitatea, genero- eta sexu-adierazpena, arraza, klasea, adina, etnia, lehenetsun sexuala, migrazio-estatusa, dibertsitate funtzionala, eta abar. Gainera, sistema binaristaren (gizona eta emakumea) aurrean, sexu eta genero identitate zein adierazpenen aniztasuna baieztatzen dugu, askotariko identitate eta adierazpenen arteko ekitatea bermatzearen eta indartzearen aldeko apustua eginez. Halaber, orekaren eta horizontaltasunaren alde gaude boterearen erabilerari zein eskubideak eta aukerak eskuratzeari dagokionez.

Laburbilduz, feminismoek zeharka gaitzaten nahi dugu, barrurantz zein kanporantz. Hau da, kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen gure ikuspegitik ekarpena egin nahi diegu mugimendu zein agenda feministei, balio feministetan oinarritutako logika bat erabiliz barne-funtzionamenduari, egiturei eta harremanei dagokienez.

3.2. SETEM aniztasunak defendatzen dituen erakunde bat da

Homogeneousazioari eta haren asmo politikoari aurre egiteko ekintza gisa, aniztasunari buruzko ikuspegi plural eta barneratzaileen aldeko apustua egiten dugu, kultura, etnia, hizkuntza, sexu, genero eta funtzionaltasunaren esparruei dagokienez. Puzzle bat osatzen dugu, giza eskubideak marko gisa hartuta, non pertsona guztiek lekua izan behar duten beren nortasunak, beharrak eta askotariko ekarpenak aintzat hartuta.

Dibertsitateen defentsa inoiz baino garrantzitsuagoa da, indarkeria areagotzen ari dela eta, besteak beste, arrazismoa eta LGTBIfobia sustatzen dituzten gorroto-diskurtsoak normalizatzen ari direla ikusten dugun garai honetan. SETEMen diskurtso eta indarkeria horiek arbuizatzen ditugu, aniztasunak gizartearen berezko ezaugarri aberasgarri gisa sustatuz eta baloratuz.

Ildo horretan, nazioarteko lankidetzaren arloko erakunde gisa, zalantzan jarri eta eraldatu nahi dugu egungo garapenaren kontzeptu hegemonikoa, soilik hazkunde ekonomikoari lotutako kontzeptu inposatu eta baztertua gisa ulertuta; bai eta eredu horrek sustatu dituen botere-harreman kolonialak ere, zeinen atzean nagusitasun zuriaren ideologia arrazista baitago. Sistema kolonial eta arrazista honetan dugun posizioa zalantzan jarri nahi dugu, trukerako zein elkarrizketarako zubi horizontalak eraikiz, praktikak eta diskurtsoak dekolonizatzeko eta justizia sozial eraldatzailea eraikitzeko.

3.3. SETEM bizitza erdigunean jartzen duen erakunde bat da

Bizitza erdigunean jartzea bizitzak (gure bizitzak) zaintzea (eta autozaintzea) da, biziak izatea merezi dezaten, eskura ditugun baliabide guztiak baliatuz gozatzeko eskubidea bermatzeko. Zainketak, afektuak eta emozioak aitortu eta balioetsi behar ditugu, horien kudeaketa erantzukidetasunez hartuta.

Horrenbestez, ikuspegia eta lehentasunak aldatzea proposatzen dugu; bizimodua eta denboraren banaketa aldatzea. Honako hauek aldarrikatzen ditugu: edukitzearen aurrean, izatea; desazkundera, egungo zein etorkizuneko belaunaldiekiko arduratsua, planetaren aukerekin bateraezina den hazkunde mugagabearen aurrean; aberastasunaren banaketa ekitatiboa, metaketaren aurrean. Pertsonen artean eta naturarekiko errespetuzkoak, bidezkoak eta solidarioak diren harreman eta praktika politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen eraikuntzan oinarritutako apustua da.

Bizitza erdigunean jartzea izaki interdependenteak garela ulertzea da, hau da, beste izaki batzuen existentziaren menpe gaudela. Ezinezkoa da gizaki baten bizitza pentsatzea beste gizaki baten laguntzarik gabe. Horregatik, indibidualismoa baztertzeko dugu, eta pertsona bakoitzak besteekiko eta naturarekiko duen garrantzia nabarmentzen dugu, aniztasuna eta bizitzari eustea bermatzen duen eraikuntza kolektiboko prozesu batean.

3.4. SETEM ingurumena defendatzen duen erakunde da

Batez ere giza jarduerak eragindako krisi ekologikoa aurre egin beharreko erronka handienetako bat da. Dinamika horretatik atera eta etorkizuneko belaunaldientzat bizitza duina bermatzeko, perspektiba eta logika aldatu behar dira: bere baitan helburu gisa ulertutako hazkunde ekonomikoaren ideia kapitalista erabat alde batera utzi behar da, planetaren benetako mugekin eta pertsonen bizitza duina garatzeko gaitasunarekin talka egiten baitu.

Badakigu izaki ekodependenteak garela, gure jarduera guztietarako erabiltzen ditugun baliabideak eta ondasunak naturatik ateratzen direlako; horregatik, ingurumenearen defentsan oinarritutako eredu sozioekonomiko bat aldarrikatzen dugu, natura gizakiaren menpe dagoela sinetsita estraktibismoa eta suntsipena bultzatzen duten logika kapitalisten aurrean. Iparraldeko herrialdeen kontsumo-maila handitzeko hegoaldeko herrialdeetako baliabideak espoliatzen dituen garapen kontsumistaren ereduaren aurrean, kontsumo kritikoa, arduratsua eta eraldatzailearen eredu bat bultzatzen dugu; horrek gizartearekiko eta ingurumenearekiko arduratsua diren ekoizpen eta banaketa sistemak behar ditu. Horretarako, hegoaldeko eta EAEko erakundeekin batera, askotariko ekimenak babesten ditugu: estraktibismoaren aurrean lurraldea defendatzen dutenak, lurraldearen kudeaketa agroekologikoa proposatzen dutenak, eta tokiko eta gertuko zirkuitu ekonomikoaren garapena bultzatzen dutenak, besteak beste.

3.5. SETEM antolakunde horizontal bat da, parte-hartzailea eta sarean eragiten duena

Bizitza kudeatzeko logika hierarkiko eta autoritarioak eraldatzeko, kolektiboki eraiki behar da, ahalik eta horizontaltasun handiena, parte-hartze bidezko eta inklusiboa, autonomia eta

interdependentzia baliatuz. Era berean, SETEMen barruan zein beste erakunde batzuekin saretuta dauden pertsonen osaturiko erakunde bat izan beharra dago: garena eta izan nahi duguna besteak direnarekin eta izan nahi dutenarekin uztartzen dugu. Eta horrelaxe eragiten dugu elkarrekin.

Jarduteko modu horrek berekin dakar gure lehentasun politikoak gure larrutik pasa behar direla, jakinda banakako ekintzek mugak dituztela, eta, ondorioz, beharrezkoak direla eragin kolektiboko moldeak, tokikoak zein globalak, pertsonen, ekimen komunitarioen edota nazioarteko sareen arteko zirkulu bertutetsuak garatuz eragin erreala lortzeko.

4.- ZER EGITEN DUGUN (ILDO SEKTORIALAK)

SETEMEk irizpide etiko, sozial eta kulturaletan nahiz ingurumen-irizpideetan oinarritutako ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak bultzatzen ditu. Halako ereduak ekonomia solidarioak eraikitzea ahalbidetzen dute, pertsonak (askotarikoak) erdigunean izanik, beren ingurune naturalarekiko harreman harmoniatsuan. Ereku horretan, indarra hartzen du kontsumo kritikoa, arduratsu eta eraldatzailearen (KKAEE) ideiak.

Logika kontsumistak sortutako indibidualismoaren eta atsekabearen aurrean, KKAEEak loturak eta harremanak zaintzen dituzten identitate berriak eraikitzea sustatzen du. Edukitzearen aurrean izatearen balio nabarmentzen duen proposamen politikoa da. Errotiko aldaketa sustatzeko, KKAEEak, lehenik eta behin, kontsumoaren murrizketa orokorraren beharra azpimarratzen du; eta, bigarrenik, bidezko harreman sozialetan eta ingurune naturalarekiko errespetuan oinarrituz lortutako produktuak kontsumitzeko beharra (elikadura-burujabetzan oinarritutako ekoizpen ekologikoa, bidezko merkataritza, banka eta aseguru etikoak...). Ikuspegi hori merkatu monetarizatu bateko jarduera ekonomiko gisa kontsumitzetik harago doa, eta bizitza on baterako ekarpen ez-materialak azpimarratzen ditu. Pertsonak herritartzat hartzen ditu, ez kontsumitzaile soiltzat.

KKAEEak arreta berezia eskaintzen die indarrean dagoen sistema kapitalista zisheteropatriarkalari eusten dioten desberdintasunei eta proposamen feministei, nagusi diren balio matxistak ez erreproduzitzeko eta balio feministetan oinarritutako ekoizpen eta kontsumo alternatibak sustatzeko.

Gure ustez, KKAEE eredu baterantz aurrera egiteko, garrantzitsua da boteretik jardutea hiru mailatan:

- Aldaketa pertsonalaren boterea: zer erabaki hartu ditzakegun eta zer egin dezakegun maila pertsonalean, modu kritikoa, arduratsuago eta jasangarriagoan kontsumitzeko, eraldaketarako tresna gisa.
- Indar kolektiboaren boterea: nola antolatzen garen kolektiboki, giza bizitza eta planeta errespetatzen dituen beste ekoizpen eta kontsumo eredu bat sortzeko.
- Joko-arauak aldatzeko boterea: kontsumo kapitalistaren oinarri eta euskarri diren egiturak aldatzeko erantzukizun politikoa eta ekonomikoak zein diren agerian uztea.

Horrela, KKAEEa sustatzen dugu honako hauen bidez:

4.1. Bidezko merkataritza eta elikadura-burujabetza

Etxeko eta tokiko merkatuetarako elikagaien ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu bat defendatzen dugu, nekazarien eta familien ustiategi dibertsifikatuetan, ekoizpen-sistema agroekologikoetan eta kate oso eragileen arteko gertuko eta konfiantzazko harremanetan oinarrituta. Kafea edo kakaoa bezalako produktuak oso errotuta daude gure kontsumo-ohituretan, baina horiek ekoizteko beharrezkoak diren baldintza klimatikoak direla eta, ezin dira merkaturatze-zirkuitu laburretan sartu; kasu horietan, bidezko merkataritzaren printzipioen arabera ekoizpen, esportazio eta banaketa sistema bat aldeztu dugu.

Zehazki, honako printzipio hauetan oinarritzen dugu gure proposamena:

- Nekazarietat bidezko prezioak ziurtatu behar dira.
- Lurra, ura, basoak eta naturako beste ondasun komun batzuk erabiltzeko aukera bermatu behar da, birbanaketa ekitatibo baten bidez.
- Emakumeek elikagaien ekoizpenean duten papera aitortu eta sustatu egin behar da, bai eta ekoizpen-baliabideak berdintasunezko baldintzetan erabiltzeko aukera izan dezaten bultzatu ere.
- Herritarrek elikagai osasungarriak eta eskuragarriak lortu ahal izatea bermatu behar da.
- Lehentasuna eman behar zaio komunitateak ekoizpen-baliabideen gaineko kontrola izateari.

- Elikaduraren oinarri diren haziak babestu behar dira, nekazariak askatasunez trukatu eta erabiltzeko; horrek bizitza ez patentatzea esan nahi du.
- Genetikoki eraldatutako laboreen gaineko luzamendu bat onartu behar da, landare eta animalien funtsezko aniztasun genetikoak kutsatzea eragiten baitute.
- Inbertsio publikoa handitu behar da familia eta komunitateen ekoizpen-jarduera sendotzeko.

Nekazaritzako elikagaien alorretik haratago, bidezko merkataritzaren printzipioak babesten ditugu beste produktu batzuetan ere (ehungintza, kosmetika, artisautza, etab.), bermatzeko sektore horietako langileen (batez ere emakumeak) giza eskubideak errespetatzen direla, soldata duinak ordaintzen direla, elkartzeko askatasuna eta askatasun sindikala daudela, lantokiak seguruak direla, ordutegiak araututa daudela, eta ingurumena babesten dela.

4.2. Finantza etikoak

SETEMek bere ahaleginen zati handi bat bideratzen du armagintza industriaren eta finantzen sektorearen arteko loturak agerian uzteko. Zailtasun handiekin (ez da erraza horri buruzko informazioa lortzea, ezta zabaltzea ere), erakutsi dugu gerraren eta mugen militarizazioaren negozioa ez litzatekeela posible izango bankuen laguntzarik gabe, formula konplexuak baliatuta.

Bestalde, finantzen munduan ere badaude gure gizarteetan ohikoak diren genero-harreman diskriminatzaileak. Aitzitik, bankuen jarduerak, konfigurazio sozial eta politikorako duen ahalmen itzelarekin, matxismoaren eta uniformetasun zisheterosexualaren kode zapaltzaileetan oinarritutako sistema indartzen du.

Hala ere, bankuen sektore konbentzionalak giza eskubideak eta ingurune naturala errespetatuz jardutea lortzeko itxaropena aspalditik galdu dugu. Horri kontrajarrita, ordea, ilusioak gainezka egiten digu gure indarrak banka etikoko alternatibetan jartzen ditugunean, hala nola FIAREn; horren parte gara eta indar guztiekin laguntzen saiatzen gara. Eginkizun horretan, gogoan dugu ekonomia sozial eta solidario bat eraikitzeko, finantzak funtsezko zutabeetako bat izanik, feminismoaren balioek zeharkatu behar dutela, bai erakundeen barne-funtzionamenduan, bai haien arteko harremanak gidatzen dituzten dinamiketan, bai eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuetan.

4.3. Giza eskubideen eta lan eskubideen defentsa ehungintzaren sektore deslokalizatuan

Ehungintzaren sektoreko langileen³ bizi-baldintzak eta lan-baldintzak hobetzen laguntzen dugu Arropa Garbia kanpaina parte hartuz. Kanpaina hori GGKEen, sindikatuen eta kontsumitzaileen erakundeen nazioarteko sare bat da, jantzigintzaren industria globaleko langileen baldintzak hobetzeko lan egiten duena. Espainiako Estatuan SETEMek gidatzen duen Arropa Garbia Kanpaina Europako beste 17 herrialdetan dago: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Frantzia, Herbehereak, Italia, Norvegia, Erresuma Batua, Irlanda, Suedia, Suitza, Turkia eta Polonia. Gainera, mundu osoko 200 langile-erakunderekin baino gehiagorekin elkarlanean aritzen da.

Arropa Garbia Kanpainak lau jarduera ildotan garatzen du bere jarduera:

- Ehungintzako langileen egoerari buruzko ikerketak egitea, kirol arropa eta oinetakoak ekoizten dituzten herrialdeetako langileen erakundeen sarearen laguntzarekin.
- Kontsumitzaileak kontzientziatzea eta mobilizatzea.
- Presioa egitea enpresa eta erakunde politikoei.
- Ehungintzaren sektoreko langileen giza eskubideen eta laneko eskubideen urraketen kasuak salatzea.
- Ehungintzaren sektore deslokalizatuko langileei beren eskubideen defentsan babes ematea.

³ Ehungintzaren sektorean lan egiten dutenen %80 baino gehiago emakumeak dira.

4.4. Indarkeria matxistak desagerraraztea ekoizpenaren eta kontsumoaren bidez

Sistema zisheteropatriarkala funtsezkoa da ekoizpen eta kontsumo kapitalistan indarkeria matxistak errotzeko; eta sistema kapitalistak sistema patriarkalaren balioak betikotzen ditu. Elkar elikatzen duten eta elkarren beharra duten bi engranaje dira. Sistema kapitalistak etekin handiena lortzen du pertsonen eta ondasun naturalen ustiapenaren kontura, eta sistema patriarkalean aliatu bat du bere egituraren barruan genero-desorekak justifikatzeko eta legitimatzeko.

Bai etxeko eremuan, bai eremu publikoan, kontsumoa sustatzeko objektu huts bihurtzeraino emakumeek pairatzen dituzten indarkeria ugari identifika ditzakegu. Indarkeria horiek, kasu askotan, garden bihurtzeko duten gaitasunagatik, normalizatu egiten dira, genero rola eta estereotipoak sendotuz eta kontsumitzen duenaren osasuna bera arriskuan jarriz; kasu honetan, emakumeena eta pertsona ez-normatiboena.

Indarkeria matxisten, ekoizpen-prozesuen eta kontsumoen arteko loturak identifikatu nahi ditugu, baina, era berean, lotura horiek zalantzan jarri, horiekin hautsi eta benetako berdintasunerantz urratsak egiteko alternatibak planteatzen dituzten ereduak aurkitzen saiatzen gara. Eredu nagusiak, bere esentzia binarista (gizonak/emakumeak) eta arrazistaren bitartez, normatibitateak kanpo geratzen diren gorputzak, praktikak eta desioak baztertzen ditu; hori jakinda, gure begirada zabaltzen dugu, produkzioak eta kontsumoak bazterkeria horiek betikotzeko jokatzeko duten papera modu espezifikoan aztertuz eta aniztasunak erabat legitimatuta dauden alternatibak eraikitzearen aldeko apustua eginez.

4.5. Xede feminista eta generoko kuestionamenduak dituzten erakundeak nahiz sexu eta genero aniztasunak sustatzen dituzten kolektiboak indartzea

Lehentasunezko zat jotzen dugu zisheteronormatibitateak ezartzen dituen mugetatik kanpo geratzen diren emakumeak eta pertsonak beren interesen arabera antolatzea, beren arazoei eta kezkei erantzuteko ekintzak eta estrategiak abian jartzeko eta, horrela, beren ingurunean ekitate handiagoa lortzeko eraldaketak sustatzeko. Zalantzarik gabe, subjektu politiko gisa finkatzea helburu bat da berez. Hala ere, SETEM Hego Haizearentzat ezinbesteko baldintza da, sexu eta genero aniztasunak eta berdintasuna bultzatzen dituzten ekoizpen eta kontsumo praktika inklusiboak sustatzeko gure helburu espezifikoari dagokionez.

Ildo horretan, xede feminista edo generoko kuestionamenduak dituzten erakundeen antolaketa indartzeko konpromisoa hartzen dugu, bai eta kolektibo disidente sexu-generikoen eskubideak defendatzen dituzten taldeena ere, betiere kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailea giza eskubide indibidual eta kolektiboetan zein naturarekiko errespetuan oinarritutako mundua eraikitzeko tresna gisa identifikatzen badute. Horrek ez du esan nahi erakunde horiek beren jarduera KKAEaren eremuan zentratu behar dutenik, baizik eta KKAEren ikuspegia kontuan hartu behar dutela beren agendetan eta laneko zein funtzionamenduko praktiketan.

5.- NOREKIN LAN EGITEN DUGUN (SUBJEKTUAK)

Plan estrategikoa indarrean dagoen bitartean, harremana dugu edo izango dugu honako subjektu hauekin:

- Inguruko kolektibo feministak (Euskadi)
- Hegoaldeko kolektibo feministak
- Euskadiko herrietako emakumeen etxeak
- Boluntarioen harrobi diren erakundeak (Batekin Araban, Bolunta Bizkaian, Gizalde Gipuzkoan)
- Erakunde publikoak: Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, Gasteizko Udala, Donostiako Udala, Bilboko Udala, Basauriko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, AECID - Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia, Europako Batasuna
- Hedabide alternatibo eta independenteak
- Hedabide konbentzionalak
- Ikuspegi kritikoa duten eduki-sortzaileak/*influencer*-ak
- Elkartek, mugimenduak, herrietako taldeak (Herrika estrategia) (erakunde sozialak, emakume taldeak, ikastetxeak, talde ekologistak...). *Orain daudenak, baina gero eta gehiago izatea nahi dugu.*
- Herrika elikatzeko kolektibo berriak
- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) parte diren entitateak
- Kolektibo antimilitaristak edota bakezaleak (Euskadin eta Katalunian). Adibidez: Banca Armada, Gerrarik Ez plataforma, Eragozpen Fiskala plataformako entitateak (KEM – MOC)...
- Kolektibo ekologistak
- Beste SETEM batzuk / SETEM Federazioa
- Bidezko merkataritzako eta KKAeko kolektiboak: CECJ - Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundea, Bidezko Merkataritzako Bilboko eta Donostiako partzuergoak, Zentzuz, Saretuz...
- Arropa Garbia Kanpaina: CRL Espainiako Estatuan eta CCC nazioartean (hegoaldeko erakunde ekoizleak)
- Gasteizko Alde Zaharreko kolektiboak, Sumendi, gune autogestionatuak, auzo elkartek...
- Zaintzarako auzo-sareak
- Kolektibo antirrazistak
- Sexu eta genero aniztasunaren aldeko kolektiboak
- Errefuxiatuekin lan egiten duten erakundeak
- Arte eszenikoen kolektiboak eta espazioak
- Aisialdi hezitzailea (eskolak edota taldeak)
- Unibertsitateak
- Lanbide Heziketako ikastetxeak
- Beste GGKE batzuk: Medicus Mundi Araba, Mugarik Gabe...
- Euskadiko GGKEen Koordinakundea
- Zarensare
- Hegoaldeko erakunde aliatuak:
 - AFEDES (Guatemala)
 - Maquita (Ecuador)
 - Mujeres de Frente (Ecuador)
 - Acción Ecológica (Ecuador)
 - FEPP (Ecuador)
 - COMBOS (Colombia)
 - Mujeres que Crean (Colombia)
 - Penca de Sábila (Colombia)
 - Kinal Antsetik (Chiapas)
 - Mujeres Transformando (San Salvador)
 - REDES (San Salvador)
 - Concertación de Mujeres de Suchitoto (San Salvador)
 - Etorkizunean elkarlanean aritzea nahi dugun hegoaldeko beste erakunde aliatu posible batzuk

6.- BULTZATU BEHARREKO ESTRATEGIAK ETA HORIEN ADIERAZLEAK

A. ERAGIN SOZIAL ETA POLITIKOA

A.1. SETEMek, bere aliatuekin batera, Euskadiko, Espainiako Estatuko eta Europako erabakitzaile politikoengan eragiten du legeria lotesleak lortzeko, enpresa transnazionalak giza eskubideen eta ingurumenaren gaineko benetako zein balizko inpaktu negatiboaz arduratzera behartzeko.

- **A.1.1. adierazlea.** Harreman gehiago ezarri ditugu sindikatuekin eta alderdi politikoekin, aurrera eramaten ditugun lan-ildoak agenda politikoan sartuz.
- **A.1.2. adierazlea.** Hainbat estrategia egokitu ditugu ildo sektorialetako zenbaitetan: Arropa Garbia Kanpaina; bidezko merkataritza eta elikadura-burujabetza; finantza etikoak; indarkeria matxistak eta kontsumoa.
 - **A.1.2.a. adierazlea.** Arropa Garbia Kanpainaren eta bidezko merkataritza/elikadura-burujabetzaren ildo sektorialetan sarean eragiten jarraitzen dugu.
 - **A.1.2.b. adierazlea.** Indarkeria matxisten eta kontsumoaren ildo sektorialean aliantzak sortu ondoren, elkarrekin eragiteko bideak aztertu ditugu.
 - **A.1.2.c. adierazlea.** Finantza etikoaren ildo sektorialean aliantzak sortu ondoren, elkarrekin eragiteko bideak aztertu ditugu.

A.2. SETEMek bide eta tresna berriak bilatzen ditu euskal administrazio publikoetan eragiteko, beste eragileekin sareko elkarlanean (REAS, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Zentzuz, Saretuz, Bidezko Merkataritzako sareak, etab.).

- **A.2.1. adierazlea.** Eragin politikoa lortzeko dagoeneko dauden bideak eta tresnak ezagutu eta aztertu ditugu, geure buruak trebatuz.
- **A.2.2. adierazlea.** REAS sarean eta GGKEen Koordinakundean parte hartu dugu, guretzat lehentasunezko sareak baitira; gainera, modu proaktiboan, gure eztabaidak eta hausnarketak sare bietara eraman ditugu, eragina bideratzeko.
- **A.2.3. adierazlea.** Euskadiko GGKEen Koordinakundearen (batez ere Arabako ordezkarietan), REASen eta Zentzuz sarearen ekintzetan parte hartu dugu, euskal administrazio publiko nagusietan kontsumoarekin lotutako politiken koherentzia bultzatzeko.

A.3. SETEMek harreman estrategikoak sendotzen ditu Mexiko, El Salvador, Guatemala, Ekuador eta Kolonbiako erakunde aliatuekin, eta beste herrialde batzuetan aliantza berriak aztertzen ditu.

- **A.3.1. adierazlea.** Hegoaldeko aliatuekin lan egiten dugun lurraldeetan bizi den egoera bidegabearen arrazoiak ikusarazi eta salatu ditugu. Hegoaldeko gure aliatuen testuingurua zabaldu dugu, eta haien lanaren zein borrokan bozgorailu gara.
- **A.3.2. adierazlea.** Nazioarteko Elkartasun Auzolandegiak antolatu ditugu.
- **A.3.3. adierazlea.** Erakunde aliatuekin elkarlanean aritzeko gune bateratuak aztertu ditugu: ezagutzaren transferentzia, ezagutzaren sorkuntza kolektiboa, gaitasunen sendotzea (Zarensare sareak, ikaskuntza-komunitateak eta beste aukera batzuk).
- **A.3.4. adierazlea.** Hegoaldeko beste herrialde batzuetako (Afrika eta Asia) erakundeekin harremanak izateko aukera aztertu dugu, KKAE ekoizpen eta kontsumoarekin zein emakumeen ahalduzkoekin lotutako gaiak lantzen badituzte.

A.4. SETEM erreferentzia da KKAEan. Gurean adituak gara.

- **A.4.1. adierazlea.** Hainbat gairi buruzko materialak eta ikerketak landu eta berritu ditugu: zero kilometroko produktu ekologikoak, elikadura-burujabetza, bidezko eta tokiko merkataritza,

ehungintza industria, banketxe konbentzionalak, energiaren kontsumo arduratsua, finantza etikoak, indarkeria matxistak eta kontsumoa, eta SETEMen zereginari lotutako beste esparru batzuk, bidegabekeriak eta eskubide-urraketak salatzeko, erantzukizun politikoak eta ekonomikoak eskatzeko eta egiturak aldatzeko xedearekin.

- **A.4.2. adierazlea.** Talde tekniko eta boluntarioentzako formakuntza-programa espezializatuak bultzatu ditugu (*ikusi D.3.1 adierazlea*).
- **A.4.3. adierazlea.** KKAE lantzeko aholkularitza-zerbitzuen katalogo bat dugu (*ikusi D.9.2. adierazlea*).
- **A.4.4. adierazlea.** KKAEaren inguruan egindako ikerketak eta lanak estrategikoki kokatu ditugu webgunean eta sare sozialetan.

A.5. SETEM honako hauen bidez iristen da herritarrengana: Elkartasun Auzolandegiak, Balio Faktoria, Herriakako jarduerak, kaleko ekintzak, eta abar; bai eta informazioa, parte-hartzea eta inplikazioa errazten duten barne eta kanpo komunikaziorako kanalak.

- **A.5.1. adierazlea.** Komunikazio estrategia eta materialak prestatu ditugu, askotariko formatu erakargarrietan, herritarrak gure jardueretara erakartzeko.
- **A.5.2. adierazlea.** Komunikazio plataforma berriak aztertu ditugu, herritarrei gure lana ezagutarazteko: podcast-a, sare sozialak eta beste plataforma digital batzuk.
- **A.5.3. adierazlea.** Bazkideekiko eta boluntarioekiko komunikazio modu berriak indartu edota esploratu ditugu.
- **A.5.4. adierazlea.** Hizkera inklusiboa erabili dugu gure komunikazio guztietan.

A.6. SETEMek KKAEa ezagutarazteko eta Ekonomia Sozial Solidarioaren alternatibak ikusarazteko guneak eskaintzen ditu.

- **A.6.1. adierazlea.** Gasteizen KKAEaren inguruko informazio-bulego edo behatoki bat sortzeko aukera aztertu dugu, boluntarioen laguntzarekin (SETEMekoak eta beste erakunde batzuetakoak) eta baliabide propioekin.
- **A.6.2. adierazlea.** KKAEa lantzeko guneak eskaini ditugu unibertsitatean eta lanbide heziketako zentroetan.
- **A.6.3. adierazlea.** Tokiko eremuak aztertu ditugu, sentsibilizatzeko eta ESSaren alternatibak ezagutarazteko bide gisa.

A.7. SETEMek ikuspegi feminista sustatzen du ikuspegi hori ez duten aliatuen eta sareen artean, eta, aldi berean, KKAEa bultzatzen du aliatu eta sare feministen artean.

- **A.7.1. adierazlea.** KKAEari buruzko hausnarketa ikuspegi feministarekin sustatzeko estrategiak aztertu ditugu.
- **A.7.2. adierazlea.** KKAEaren inguruan ikuspegi feministarekin egiten duguna mugimendu feministari helarazi diogu, bertan parte hartzearekin batera.
- **A.7.3. adierazlea.** Mugimendu feministaren eztabaidak eta hausnarketak sartu ditugu KKAE sareen agendetan.

A.8. SETEMek KKAEari buruzko formakuntza eraldatzaileko erreferentziazko espazio bat eskaintzen jarraitzen du.

- **A.8.1. adierazlea.** Balio Faktoriak eta beste formakuntza-espazio batzuek funtzionatu dute; herri eta hiri gehiagotara iritsi dira, eta etengabeko eskaintza dute hiru hiriburu eta probintzietan.
- **A.8.2. adierazlea.** Formakuntza-eskaintza etengabe berrikusi eta ebaluatu da.

B. ALIANTZAK ETA SAREAK SENDOTZEA ETA INDARTZEA

B.1. SETEMek Herrika estrategia indartzen du (herrietako entitateekin) harremanak egonkorragoak izan daitezten.

- **B.1.1. adierazlea.** Aliantzak aztertu ditugu SETEMekin modu iraunkorrean lan egin nahi duten euskal erakundeekin (sozialak, ekologistak, feministak, hezkuntzakoak, emakumeenak, bizilagunenak, etab.).
- **B.1.2. adierazlea.** Euskal entitateak indartzen dituzten ekintzak egin ditugu, eta, zehazki, honako hauetan lagundu diegu:
 - barne-ekintzak (entitateen antolaketa indartzea)
 - kanpo-ekintzak (KKAEa ikuspegi feministarekin lantzeko jarduerak laguntzea edota elkarrekin egitea).

B.2. SETEM mugimendu feministaren barruan kokatzen da, bereziki Gasteizen.

- **B.2.1. adierazlea.** Mugimendu feministan aktiboki parte hartu dugu.
- **B.2.2. adierazlea.** Mugimendu feminista aintzat hartu dugu SETEMen abian jarri ditugun ekintza eta prozesuetarako erreferente posible gisa.

B.3. SETEMek tokiko, autonomia erkidegoko, estatu mailako zein nazioarteko sareetan aktiboki parte hartzen jarraitzen du: ZarenSare, REAS Euskadi, Euskadiko GGKEen Koordinakundea (batzar orokorrak, lurralde-batzarrak, genero-taldea), Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Bidezko Merkataritzako partzuergoak, Emakumeen Mundu Martxa, Pobrezia Zero Donostia Plataforma, Arropa Garbia Kanpaina, Banca Armada, Eragozpen Fiskalaren aldeko sarea.

- **B.3.1. adierazlea.** Sare horiek salatzeko eta eragiteko antolatutako ekintzetan parte hartu dugu.
- **B.3.2. adierazlea.** Sare horiek bultzatutako gogoeta eta formakuntza guneetan parte hartu dugu.

C. ALIANTZA BERRIAK ERAIKITZEA

C.1. SETEMek aurrera egiten jarraitzen du askotariko errealitate zein borrokaren aurrean duen bere ikuspegi politikoan eta posizionamenduan:

- Mugimendu ekologistako kolektiboak
- Arrazakeriaren aurkako mugimenduko kolektiboak
- Sexu eta genero aniztasunaren aldeko entitateak
- Mugimendu bakezale eta antimilitaristako entitateak
- **C.1.1. adierazlea.** Aipatutako kolektiboekin ekintza bateratuak sustatu ditugu edota horietan parte hartu dugu.
- **C.1.2. adierazlea.** Aipatutako kolektiboetako batzuekin formakuntza-saioak egin ditugu, SETEMen hausnarketa eta posizionamendua bultzatzeko.
- **C.1.3. adierazlea.** Aipatutako kolektiboekin ezagutzak trukatzeko modu alternatiboak bilatu ditugu.
- **C.1.4. adierazlea.** Erakunderen batekin modu iraunkorrean lan egiteko aukerak aztertu ditugu.

C.2. SETEMek aliantzak sortzen ditu egoitza duen auzoko entitateekin, bai eta balioak, esperientziak eta ezagutzak partekatzen dituzten entitateekin ere, *a priori* garapenerako lankidetzatik gertu egon ohi ez diren arren.

- **C.2.1. adierazlea.** Aliantzak egin daitezkeen auzoko entitateak identifikatu ditugu.
- **C.2.2. adierazlea.** Gasteizko (Alde Zaharra) eta Donostiako (Egia) auzoko jardueretan parte hartu dugu, SETEMekin bat datozenean.
- **C.2.3. adierazlea.** Ezagutza partekatu dugu entitate horiekin.

C.3. SETEMek aliantzak sortzen ditu hedabide alternatiboekin eta hedabide konbentzionalekin.

- **C.3.1. adierazlea.** Komunikabideei KKAEari buruzko edukia eskaintzeko gaien plan bat egin dugu.
- **C.3.2. adierazlea.** Komunikabideekiko lankidetzak aztertu ditugu: ekonomikoak, trukeak, eta abar.
- **C.3.3. adierazlea.** SETEMen lana ikusarazteko, komunikazio plataforma berriekin lankidetzak iraunkorrak aztertu ditugu (*ikus* A.6.2 adierazlea).

- **D. ANTOLAKETA FUNTZIONAMENDU KOHERENTEA / SETEM HUNKIGARRIA ETA JASANGARRIA DA**

D.1. SETEM barne-hausnarketak bultzatzen dituen erakundea da, zalantzan jartzeko zer egiten duen eta nola egiten duen zenbait esparrutan: arrazakeriaren aurkakoa, sexu eta genero aniztasunak, ekologismoa, dekolonialitatea.

- **D.1.1. adierazlea.** Ikuspegi horien inguruko formakuntza-saioak egin ditugu (*ikus C.1.2. adierazlea*).
- **D.1.2. adierazlea.** Ikuspegi horiek SETEMen txertatzeari buruzko barne-hausnarketarako guneak bultzatu ditugu, hegoaldeko eta iparraldeko erakundeen laguntzarekin.

D.2. SETEM gero eta erakunde anitzagoa da pertsonen parte-hartzeari dagokionez (jatorria, genero-identitatea, arraza, gaitasunak, adinak, hizkuntza...).

- **D.2.1. adierazlea.** Herritarrentzako jarduerak antolatu ditugu, hainbat kolektiborekin elkarlanean.
- **D.2.2. adierazlea.** Gure erakundeko kanalak eta hizkuntzak egokitu ditugu, publiko guztiak erakartzeko.
- **D.2.3. adierazlea.** SETEMen barneko taldeak sortu ditugu (arrazakeriaren aurkakoak, sexu eta genero aniztasunaren aldekoak, etab.), SETEMek pertsonak, praktikak, balioak eta lan egiteko moduak bere gain hartzea sustatzeko, geure buruak eralda eta osa ditzaten.

D.3. SETEMek lantzen dituen gaietan trebatutako eta ahaldundutako pertsonak ditugu.

- **D.3.1. adierazlea.** Talde tekniko eta boluntarioentzako formakuntza-programa espezializatuak bultzatu ditugu.

D.4. SETEM bere antolakuntzaren errealitatera egokitzen da: egitura malgua da, horren parte diren kideei eta beren partaidetzari dagokionez; eta une bakoitzean dagoen oinarri soziala kontuan hartuta, bere funtzionamendua egokitzea ahalbidetuko duten mekanismoak ikusarazten ditu.

- **D.4.1. adierazlea.** SETEMen oinarri soziala indartzearen alde egin dugu, boluntarioei dagokienez.
 - **D.4.1.a. adierazlea.** Azken urteetan boluntarioak erakartzera bideratutako ekintzak egin diren ala ez berrikusi dugu, eta ekintza horiek ez egitearen arrazoiak aztertu ditugu.
 - **D.4.1.b. adierazlea.** Boluntarioak erakartzeko eta fidelizatzeko plan bat landu dugu, 2024-2027 aldian praktikan jartzeko.
 - **D.4.1.c. adierazlea.** 2027an, planaren eta emaitzen ebaluazioa egin dugu, antolaketa-egituran egin daitezkeen aldaketei buruz erabakitzeko.
 - **D.4.1.d. adierazlea.** Bazkideak eta boluntarioak lortzeko kanpaina bat martxan jarri dugu.

D.5. SETEMek hunkitu egiten gaitu: parte hartzeko gune atseginak, iradokitzaileak eta erakargarriak sortzen dira; askotariko intentsitateko gune horietan, parte hartzeko modua bestelakoa izan daiteke, eta boluntarioek, parte hartzeaz gain, parte hartu nahi dute.

- **D.5.1. adierazlea.** SETEMen lanarekin eta pertsonen aukerekin bat datozen askotariko intentsitateak eskaini ditugu parte hartzeko.
- **D.5.2. adierazlea.** Boluntarioen ekarpenak eskatu eta baloratu ditugu, parte hartzera zerk motibatzen dituen jakiteko.
- **D.5.3. adierazlea.** Aldizkako formakuntza-guneak sustatu ditugu, pertsona berriek eta ibilbide luzeagoa dutenek SETEMen egiten ditugun lan-ildoak ezagutzeko.

- **D.5.4. adierazlea.** Egindako lorpenak eta lanak ospatu eta jakinarazi ditugu.
- **D.5.5. adierazlea.** Espazio informalak zaindu ditugu, SETEMen barruko harremanak sendotzeko.

D.6. SETEMek aurrera egiten jarraitzen du erakundearen kudeaketa zisheteropatriarkala izan ez dadin, eta parte-hartzailea eta ahalik eta horizontalena izateko.

- **D.6.1. adierazlea.** Berdintasunaren aldeko planak landu eta gauzatu dugu, gatazken kudeaketa, lidergoak eta erabakiguneak kontuan hartuta.
- **D.6.2. adierazlea.** Hizkuntza inklusiboa sustatu dugu, barne-mailan eta kanpora begira.
- **D.6.3. adierazlea.** Emozioak kudeatzeko eta talde-kultura berrikusteko espazioak eta baliabideak (denbora eta pertsonak) eskaini ditugu.

D.7. SETEM gero eta erakunde euskaltzaleagoa da.

- **D.7.1. adierazlea.** Euskararen erabilera bultzatu dugu gure komunikazio guztietan, barne-mailan eta kanpora begira.
- **D.7.2. adierazlea.** Hiru lurraldeetan euskaraz egiten ditugun kanpoko jardueren kopurua handitu dugu, progresiboki.

D.8. SETEMek KKAEaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioekin bat datorren baliabideen kudeaketa egiten du, ikuspegi feministarekin eta modu gardenean.

- **D.8.1. adierazlea.** Gure eta gure erakunde aliatuen antolaketa-praktikek ingurumenean dituzten ondorio eta eraginei buruz trebatu gara, eta proposamen alternatiboak identifikatu ditugu.
- **D.8.2. adierazlea.** Irizpide sozialak, etikoak eta ingurumenekoak dituen barne-politika bultzatu dugu.
- **D.8.3. adierazlea.** Urtero, gure kudeaketaren barne-koherentzia ebaluatu dugu, KKAEaren eta ESSren printzipioen arabera.
- **D.8.4. adierazlea.** KKAEaren inguruko politikak eta barne-praktikak jendaurrean zabaldu ditugu.

D.9. SETEMek bere finantzaketa pribatua handitzen du.

- **D.9.1. adierazlea.** Funts propio gehiago lortzeko alternatibak bilatu ditugu, gure xede eta ikuspegi politikoarekin talka egingo ez dutenak.
- **D.9.2. adierazlea.** KKAEa lantzeko aholkularitza-zerbitzuen katalogo bat dugu.
- **D.9.3. adierazlea.** Funtsak biltzeko kanpainak egin ditugu (*ikus D.4.2. adierazlea*).

D.10. SETEMek finantzaketa publikoa ziurtatzen du, baita handitu ere.

- **D.10.1. adierazlea.** Finantzaketa publikoak lortzeko gure gaitasunak hobetu ditugu.
- **D.10.2. adierazlea.** Dagoeneko elkarlanean ari garenez gain, beste erakunde publiko batzuen finantzaketa bilatu dugu.
- **D.10.3. adierazlea.** Administrazio publikoekin egindako hitzarmenen bidezko finantzaketa aztertu dugu.